

## **BALIOZKO PROPOSAMENAK :**

Hauek dira besteengandik bereizten gaituzten produktuaren zenbait ezaugarri:

- **BERRITASUNA:**

- Laguntza egoera larri batean, baina ez bakarrik etxean zaudenean, baizik eta kaletik zoazenean ere. Gaur egun, agureentzako dispositibo batzuk daude, baina hauek etxetik kanpo ez daukate inolako funtzionamendurik, berez, guk betidaniko produktu bati, erabilera berri bat emango diogu, etxetik kanpo funtziona dezan.

- Prestazioan arazo horri aurre egiteaz aparte, produktu horrek hainbat apaingarri bezala erabili dezakezu eta arazo larrian egonez gero inork ez du jakingo produktuaren benetako erabilera. Betidanik egondako produktu bati (apaingarriak), erabilera berri bat eman diogu (egoera larri batetik salbatzeko ahalmena).

- **PRESTAZIOAK:**

-Lasaiago ateratzeko kalera, erasoren bat (lapurketa, bortzaketa...) jasotzeko beldurrik gabe. Ez bakarrik erasoekin, baizik eta bat-bateko gaixotasun arazoekin ere (antsietate krisiren bat, epilepsia atakea...) edo basora joatekotan, eta galtzen bazara, botoia sakatuz, zure lokalizazioa aurkitzeko gai izateko. Izan ere, produktua GPS bat integratuta izango du, eta botoia sakatzean, pertsona segundo batzuetan lokalizatu eta laguntza ahalik eta azkarren bidaliko dugu.

-Segurtasun eza ekiditeko emakumeen kasuan.

-Egoera kritiko batean bazaude, beste pertsonak erraztasunez aurkitzeko, GPS integratuaren bidez.

-Zure inguruko pertsonak lasaiago egoteko kalera joaten zarenean, badakitelako arazoren bat egotekotan, azkar lokalizatzeko gai izango direla.

-Erlojua urarekiko erresistentea izango da, horrela, hondartzen zaudenean adibidez, itsasontzi batekin egotekotan, itsas zabalean igeri egiten bazaude, eta korronteak itsasontzitik aldentzen bazaitu, urarekiko erresistentea denez, ez da apurtuko eta deia egin dezakezu, beste itsasontzi batek, zure bila joan dezan.

- **DISEINUA:**

-Erosteke momentuan erloju bat edo eskumuturrekoa bat izatea erabaki ahal da

-Produktuaren diseinua gure taldearen kide batek egingo du, marrazketan oso ona dena.

- **PERTSONALIZAZIOA:**

-Pertsonalizatu nahi duzun kolorearekin, zure gustukoa.

- *PREZIOA:*

-Prezio eskuragarria pertsona guztien egoera ekonomikora egokituta. Izan ere, bezeroek produktua modu errepikarian ordaintzeko posibilitatea izango dute, haien beharren eta egoera ekonomikoaren arabera.

- *ERABILERRAZTASUNA*

-Oso erraza da erabiltzea, bakarrik egin behar dena botoi bat sakatzea da, gainerako lana eskumuturrekoaren teknologiak eta gure enpresa egingo du.